

Kuba. Fihav 2022

Izen-emate epea: Ekainak 13

Egingo den data: Azaroaren 14tik 18ra

Herrialdea: La Habana - Kuba

IZEN-EMATEA

Eusko Ganberak, EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE AGENTZIA: BASQUE TRADE & INVESTMENT–ekin lankidetzan, euskal enpresak gonbidatzen ditugu Habana-Kubako Nazioarteko Azokaren XXXVIII. edizioko Euskal Pabiloian parte hartzera (FIHAV, 2022), 2022ko azaroaren 14tik 18ra.

Pandemiaren ondorioz, promozio- eta merkataritza-jarduerak ia mundu osoan etenda egon diren bi urteren ondoren, Habanako Nazioarteko Azokak, herrialde horretan egiten den enpresa-azokarik garrantzitsuenak bere atak irekiko ditu berriro. Sektore anitzekoa da, eta **Kubako merkatuan ezagutarazteko aukerarik onena da, Euskadik Kariben duen bazkide komertzial nagusia** baita, eta Latinoamerikako handienetako bat.

2021ean, **Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioak Kubara 83,4 milioi eurokoak izan ziren**, eta horrek berretsi egiten du 2018tik aurrera egiten ari den jaitsiera, Kubak bizi duen krisi ekonomikoaren ondorioz, COVID delakoaren eraginak areagotuta. Nolanahi ere, euskal enpresen presentzia handia da Kuban, eta esportazio guztien % 14 inguru dira Espainian.

Finantza-arazoak etengabeak izan dira azken urteotan, eta horrek esportatzaileari eskatzen dio aurkezten diren eragiketak eta bermeak aztertzea. Kubatarrak inbertsio-proiektuak bultzatzen ari dira, eta, horretarako, Kubako agintariek urtero eguneratzen dituzten **aukeren katalogo** bat aurkezten dute. Proiektu horietan Cofides-en finantzaketaren bat lortzeko aukera egon daiteke.

Esparru horretan, **euskal enpresen partaidetza bateratua antolatuko da azokan**, Expo-Cuba azoka-esparruan. Bertan, 9. pabiloia jarriko dugu euskal enpresen eskura, kubatarren artean “Pabellón Vasco” izenez ezagutzen dena.

EUSKO GANBERAK - EUSKAL GANBEREK ELKARTUTAKO PARTAIDETZAN EMATEN DUTEN ZERBITZUA

1.- **Azokan parte hartzearekin zerikusia duten antolamendu-alderdi guztiak koordinatzea**, zerbitzu integralaren filosofiaren barruan: dekorazioa, espazioak eta zerbitzuak kontratatzea. Beraz, zure enpresak esleitzen zaion eremuan instalatu instalatu baino ez du beharko.

2.- **Bilera eta konferentzien arloa koordinatzea.** Bilera-guneak ahalik eta eraginkortasunik handienarekin erabiliko direla bermatzeko, Bazkundeko pertsona batek koordinatuko du.

3.- Eusko Ganberak **enpresen partaidetza bateratuaren** hedapenaz arduratuko dira , eta honako ekintzak egingo dituzte:

- Euskal partaidetza bateratua osatzen duten enpresen katalogo espezifiko bat argitaratzea.
- Partaidetza bateratua azokaren katalogoan publizitatea txertatzea.

Kontsultatu [Habanako Nazioarteko Azokan parte hartzeko baldintzak](#).

Laguntzak

Jarduera honetan parte hartzen duten enpresek finantza-laguntza eskatu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak ezarritako laguntza-programen bidez. Nazioartekotzeko Euskal Agentzia – Basque Trade & Investment. [Zabaldu programa](#).

Eskaera epea

Eskaera egiteko epea **2022ko ekainaren 13an** amaituko da.

Dagokion ordainketarekin batera aurkeztu ez diren eskabideak ez dira izapidetuko.

Ondoren, faktura enpresari bidaliko zaio.

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

